


8.- ERANSKINAK



«Bestela esanda, gaitasun maila bat behin lortuta ikastetxeetan edo euskaltegietan ikasitakoak jarraipenik izango duela ziurtatzeko euskararen erabilera tinko bermatzen duen harreman euskaldunen sarearen hedadura neur daiteke. Harreman euskaldunen sarearen nahikotasuna finkatzeko egoera askoren azterketa sistematikoek adieraziko digute ingurune bakoitzean zenbaterainoko sare euskalduna behar den gaitasunean atzera ez egiteko»

1. Soziograma: lagun koadrilaren hizkuntza harremanak informazio kontraesanak ematen direnean edota euskara sartzen denean.


Informazioaren kontraesanak: - - - - -

Gehienetan erderaz —————

Gehienetan euskaraz —————

Kide elebidunak □

Agerian gelditu da gizarte sareen hurbilpen metodologikoa guztiz baliagarria dela, besteak beste, bi hizkuntza elkarren ondoan bizi direnean, hizkuntz bien presentzia egoera horretako gizarte harremanetan aztertzeko. Besteak beste diogu, izan ere, hurbilpen metodologiko hau aproposa dela uste baitugu taldeen nahiz erakundeen azterketarako, eta azken finean, harremanak garrantzitsutzat jotzen diren edozein arloren ikerketarako»




2. Soziograma: lanean ematen diren harreman formalak eta hauetan erabiltzen den hizkuntza.

Sarearen dentsitatea: %100

Langilea	Maila	Eusk/Gazt	Langilea	Maila	Eusk/Gazt
1*	14	7/7	9*	14	7/7
2*	14	8/6	10	14	0/14
3*	14	8/6	11*	14	5/9
4*	14	8/6	12	14	0/14
5	14	0/14	13	14	0/14
6	14	0/14	14	14	0/14
7*	14	7/7	15*	14	8/6
8*	14	8/6			

*Langile elebidunak ■
 Euskaraz ematen diren harremanak —
 Gaztelera ematen diren harremanak —



3. Soziograma: lanean ematen diren harreman informalak eta hauetan erabiltzen den hizkuntza.


Sarearen dentsitatea: %51

Langilea	Maila	Eus/Gaz	Bitartek.
1*	3	3/0	0
2*	12	7/5	7.62
3*	13	8/5	11.29
4*	13	8/5	11.29
5	6	0/6	0
6	0	0/0	0
7*	8	6/2	0.51
8*	8	6/2	0.29
9*	8	6/2	0.51
10	3	0/3	0
11*	3	3/0	0
12	8	0/8	0.74
13	7	0/7	0.14
14	5	0/5	0
15*	11	7/4	4.62

*Langile elebidunak ■
Euskaraz ematen diren harremanak —
Gaztelerez ematen diren harremanak —

Kokapenaz gain harreman sareetan badaude beste ezaugarri interesgarriak eta erabilgarriak hizkuntza planifikazio baterako: zentralitateari lotua dagoen maila kontzeptua edota maiztasuna, norabidea, intentsitatea, iraupena, edukina, etab. Sareko erdiguneko kokapeneko lekuan edo harreman maila altua ematen den lanpostuan sujetu elebiduna baldin badago, orduan, bere bitartez igarotzen diren beste sujetu elebidunek babestu beharreko hizkuntza hautatzeko aukera izango lukete. Plangintza baterako kontzeptu hauek duten erabilpen hori eskuragarritasun baxuko (harreman zuzen gutxiko) sareetan bereziki oso nabarmena izango litzateke, kasu horietan halako kokapenak are garrantzitsuagoak bihurtzen direlako»

Harremanen norabidetasuna ere interesgarria zaigu interakzioaren lehen kontaktuan bereziki: nori nori zuzentzen dion lehendabizi hitza eta zein hizkuntzetan den, kontuan hartu beharreko egoera da honek geroko harremanetan duen eraginaz jabetuta. Hori horrela, harreman formaletaz arituko den planifikazio batek egoera horretaz arduratu beharko litzateke»



4. Soziograma: lanetik kanpo lankideen artean ematen diren harreman informalak eta hauetan erabiltzen den hizkuntza.

Sarearen dentsitatea: %15

Langilea	Maila	Eus/Gaz	Bitartek.
1*	1	1/0	0
2*	3	2/1	1.50
3*	6	4/2	16.60
4*	6	4/2	18.90
5	1	0/1	0
6	0	0/0	0
7*	5	2/3	11.57
8*	1	1/0	0

Langilea	Maila	Eus/Gaz	Bitartek.
9*	0	0/0	0
10	1	0/1	0
11*	2	2/0	0
12	0	0/0	0
13	4	0/4	2.82
14	0	0/0	0
15*	2	2/0	0.95

*Langile elebidunak ■
Euskaraz ematen diren harremanak ———
Gaztelera ematen diren harremanak ———

1 Artikulu honek oinarri duen ikerketarako Euskal Herriko Unibertsitateak emandako dirulaguntza ezinbestekoa izan da eta dirulaguntza hau Begoña Arregi Gorospe irakaslearen laguntza eta zuzendaritzapean lortu zen.

2 Aurrerago ikusiko dugun bezala, egituraren orekak badu bere erabilgarritasuna gizarte sareen metodologia hizkuntza harremanetara aplikatzekoan.

3 Aurrerago azalduko ditugunak.

4 Honetan gehiago sakontzeko ikus Rodríguez, 1995 (4. kapitulua bereziki).

5 Aukerazkoa diogu, sujetuak elebidunak izanda denek dakizkiten hizkuntzetatik batean zein bestean aritzeko aukera dutelako.

6 Iturria: Eustat 1996 (1991ko Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsuaren datuak dira).

7 Irudi honen (1. Soziograma) argitasun eta ulermenaren mesederako euskarara edozein neurritan sartzen zuten harremanak edota zalantzarik ematen zuten kasuak sartu dira bakarrik. Hau da, kontraesanik ezean erdara hutsezko harremanik ez da irudi honetan aurkeztu.

8 Informazioaren kontraesan hauek saihesteko bi informatzaileek adierazten dutenaren batez-bestekoa ateratzea izango litzateke irtenbide posible bat: batek euskarara gehien bat erabiltzen dutela esaten badu eta besteak erdara gehien bat, euskaraz zein erdaraz berdin egiten dutela pentsa genezake, adibidez.

9 Hizkuntza hautaketa ezberdin honen arrazoiak ez dugu, tamalez, galderarik egin, ez eta azterketa koalitatiborik planteatu ikerketa honetan. Beste horrenbeste gertatzen zaigu aukerazko harreman desorekatuekin; informazio bilketarako prestatu ziren galdekizunetan halako egoeraren berri jaso zezakeen galderarik ez baitzen sartu.

10 Maiztasun eskakizun honen araberrako aukeraketan ere kontraesanak agertzen ziren, baina partaide guztien informazioa alderatuz gero eta zentzudunena zen informazioari jaramon eginez esandako lagunetara mugatu dugu koadrilaren bihotza.

11 Iturria: Eustat 1996.

12 Metodologia koalitatiboaren erabilgarritasuna argi gelditzen da Neka-ne Jausororen Dokterego-Tesian Jausoro (1996).

Ikerketa metodologikoa dela gogoratu, ondorioztatu genezakeena da gizarte sareen metodologia jarraituz eginiko informazio bilketa motarekin (informazio bik egoera bakarraren berri emanez) informazio kontraesankorrak ager daitezkeela behin baino gehiagotan. Informatzailearen pertzepzio subjektiboa agerian gelditzen da, eta sujetu guztiena bat ez etortzea da ohikoena. Aipatutako honek informazioaren tratamenduan eta interpretazioan du eragin zuzena; halere, jasotako informazioak ez du bere baliorik galtzen eta, gainera, erraz saihas daitekeen oztopoa da»